

Udala herritarrei galdezka: zein etxe premia dugu hernaniarrok?

■ Etxetara inkesta bat iritxiko da ■ Helburua: etxebizitzaren arazoari konponbide planifikatua ematea ■ Inkestak Udaltzaingoa edo aurrezki kutxetan utzi.

HERNANIKO Udala herritan zein etxebizitza behar dagoen aztertzen hasi da. Horretarako zazpi galderako inkesta prestatu eta buzonetzen ari da, atzo hasita.

ANONIMOA

Galderetan ez da inongo izen abizenik eskatzen: erabat anonimoak dira. Eskatzen den informazioa hau da:

GALDERAK

- 1- Zein etxetan bizi gara: norberrean, alkilerrean, gurasoenean?
- 2- Beste etxe bat beharko al dugu; zergatik...
- 3- Nolako etxea nahiko genuke eta zein aukera ekonomiko daukagu horretarako...
- 4- Noizko nahi dugu...
- 5- Azken bost urteotan eskatu al dugu etxebizitza sozial edo publikorik...

URTARRILAK 20

Inkestak entregatzeko azken eguna urtarrilaren 20a izango da. Non utzi? Munizipalietan bertan, edo bestela aurrezki kutxetan: Laboralean, Urbieta; eta Kutxan, Orkologakoan edo Plaza Berrikoan.

Etxe bakoitzean batek baino gehiagok erantzun nahi izanez gero, eskatu beste inkesta bat Udaltzaingoa. □

BERTSO SAIOA BODEGA TABERNAN

'Garzonen abenturak'

■ Extitxu Eizagirre, Iker Osa, Aritz Zerain, eta Jon Iraolak kantatuko dute ■ 11:00etan hasiko da.

AEK-k antolatuta, Garzon epailearen abenturak bertotan entzun nahi dituenak badauki nora jo. AEKren kontrako operazioa dela eta, zenbait ekitaldi antolatu ditu: tartean gaur gaueko bertso saioa.

22an, Juan Mari Larrarte deklaratzera joango da Madrilerara, Garzon epailearen aurrera. Hori salatzeko, AEK-k goizeko hamarretan kontzentrazioa konbokatuko du Gudarien plazan.

Arratsaldeko zortzitan berri, asanblea egingo da Madrilen gertatutakoaren berri emateko. □

OSTIRALEAN
KONTZENTRAZIOA
Bestalde, bihar, abenduaren

3/4 PLATAFORMA

Kontzentrazioa Plaza Berrin gaur arratsaldeko zazpietan

■ HIRULAUDEN plataformak kartzela zigorraren lautatik hiru bete dituztenak askatzeko eskatuko du. Arnaiz, Beltza eta Lujanbio dira beteak dituzten herriko preso politikoak.

OSIÑAGAKO MUS TXAPELKETA

Uralde-Alkorta txapeldun

■ Txapela eta 100 kiloko txerria eramán zituzten saritan ■ Etxeberria-Pagolak egin zuten bigarren.



Osiñakoak igandean Eizmendin musean.

JOAN den igandean jokatu zen Osiñagako Mus Txapelketa. Bikote asko izan ziren: ia hamaikak aldean bukatu zen, arratsaldeko 17:30etan hasita.

Sailkapena

- 1- Uralde-Alkorta
- 2- Etxeberria-Pagola
- 3- Mujika-Mujika
- 4- Oskoz-Etxenike □



Santo Tomasen gantxoa

Hernaniko Pikoá baserrian txerria hiltzen

SANTO Tomas ez da Donostian geldituko, txistorra Hernanira ere etorriko da. Batetik, ikastetxeetan festa eta txistor jana egingo da; eta, bestetik, Berriak elkarteak taberna eta dendetan banatuko du txistorra. 19:00etan, Karabelen ume eta gurasoentzat txistorra.

IKASTETXETAN, FESTA Hernaniko ikastetxeetan bete betean ospatuko dute Santo Tomas eguna: denetan txistor jana dago ume eta gurasoentzat. Institutuan joku eta txapelketak antolatu dituzte; Elizatxo eta Urumeak postuak jarriko dituzte gaurko ferian; eta

Inmaculadako ikasleek, berriz, bertako produktu txapelketa dute, eskolan bertan.

TXORIMALO

Dobera eta Berriak elkarteek Txorimalo lehiaketa jarri dute gaurko. Arratsaldeko sei etatik zazpietara izango da hori. □



Telemar
ITXASTELE S.L.

Telyco denda
Elkano 13, HERNANI

☎ 943 33 26 00

*Telefonica ko banatzaile eskusiboa, Movistar, zentralitak, 'Centrex', Telefono altak, Telefonía mugikorra, Faxak, "Via Digital",...

Eguberritako eskaintza:

'Telefonica Famitel' 14.900 Pta



JAIONE
Kongelatuak



20 pztako partaidetza oparitzen dut Eguberritako Loterian.

ELKANO KALEA, 1
Tel.: 943 55 07 87
20120 HERNANI

Skoda Octavia. Bizitza osoa aurretik.



OCTAVIA bat 1.995.000 ptatik.* (11.990,19 euro*)
*Penintsula eta Balearretako gomendatutako prezioa Skoda Octavia 16V Classic Garraio eta zergak barne. 1 euro=166,386 pta.

MENABI

Txingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943-40 42 43

Buruntzaldeak herritarrei kirola egiteko aukerak eman nahi dizkie

■ Buruntzaldea: Lasarte-Oria, Usurbil, Andoain, Urnieta eta Hernanik osatzen dute.

BURUNTZALDEKO Udalek, hitzarmen bat daukate 1999ko maiatzean sinatua: kirolean elkarlanean aritzea du helburua. Eskola kirolari eta euskera erabiltzeari garrantzia berezia ematen diote.

BAZKIDEEN AUKERAK Bost herrietako kiroldegiko bazkideak Buruntzaldeko edozein kiroldegietan sartu litezke; La Perlan %15 bitarteko beherapenak dituzte; eta kirol medikuntza zerbitzua dute besteak beste.

Proiektu berri bat ere martxan da: bost herriak lotuko dituen oinezko bidea egitekotan dira. Informazioa: www.buruntzaldea.org □



Udaletako arduradunak astearteko prentsaurrekoan, Urnietan.

ASTEBURUKO EMAITZAK (ESKOLARTEKO KIROLA)



Bat, bi, hiru eta lau!

ATZO, Kiroldegia umez bete zen, aerobikaren aitzakian. 3 talde dira (guztira 500 ikasle) hamasei urte bitartekoak. Kirol eskolarraren barruan, baina

konpetiziotik kanpo ariko dira; helburua: umeek jolasean kirola egitea. Kirol patronatuak "horrelako" ekintza gehiago antolatzeke asmoa omen du,

ahal dela Hernaniko auzoetan.

Erregeak pasa arte ez da eskolarteko kiroleko patidurik izango, gabonetako oporrak direla-eta. □

BOLEIBOLA	Laskorain 3 Urumea 0	SASKIBALOIA	S. Luis Lasalle 17 Langile A 50	Langile 2 18 Elizatzko 3 14
<i>Neska kadeteak:</i>	Langile 3 Sto. Tomas 0	<i>Alebinak:</i>	Inmaculada 20 Mundaiz 0	<i>Alebinak:</i>
<i>Neska infantilak:</i>	Urumea 0 Langile 3	PELOTA	<i>Infantilak:</i>	Elizatzko 1 5 Urumea 1 2
	Urumea 1 Elizatzko 2		Langile 1 18 Urumea 1 2	Langile 2 5 Langile 3 4

JASOTA BEZALA

BELKARA AUZO ELKARTEA

Gaurko txistor janarekin bukatuko ditu antolatutako dituen kultur eta kirol ekitaldiak. Laguntzen aritu zaretenok gonbidatuta zaudete; batez ere, *Hernaniko Kronika*, ekitaldien berri txuzen eta garbi emateagatik.

Auzo elkarteko lehendakari naizen aldetik, oso balorazio positiboa egiten dut. Dena anto-

latzeak lan handia eskatu digu; baina, nola atera den ikusita, berriz ere egiteko gogoia eman digu. Bukatzeko, denori eske-

rrak, Eguberri zoriontsuak pasa eta urte berri on!

Benjamin Miranda
Auzo elkarteko lehendakaria

BADATOR OLENTZERO, BADATOR

Txirrita, 10 ☎ 943 552395 - HERNANI
ZATOZ TXIMELETARA ZURE OPARIK AUKERATZERA

URGASKA, S.L.

GAS INSTALAKUNTZA
MATERIAL SALMENTA

K21

* ASISTENTZIA TEKNIKO,
GAS ETA BEROGINTZAN.
* GAS PROPANO, BUTANO
ETA NATURALA: MANTEN-

Aristizabal 9 Behea
Tel: 943 33 37 40

Jatetxea

Venta Berri

Arano - Nafarroa
(948) 51 40 18
LARUNBATETAN ITXITA

HITZ BITAN



Marisol Yabemen kuadroak kontzesionario barruan.

✓ ERAKUSKETA

Marisol Yabemen kuadroak Antziolako Ford kontzesionarioan. Artistek beren kuadroak jartzeko aukera izango dute hemendik aurrera, saltzeko nahiz erakusteko. Bi hilean behin aldatuko omen dute erakusketa.

✓ PEÑA OTAÑO ELKARTEA

Bihar barrikotea. Afaria izango da ostiral iluntzean Peña Otaño elkartearen. Menua: txorizoa sagardotan, urdaiazpiko tortila, txuleta eta kafea. Sagardoa, Otsueneak jarriko du. Afaria 2.000 Ptan izango da. Ordua: 20:30etan.

✓ EGUBERRIETAKO KONTZERTUA

Juan Bataiatzailea Parrokian, arratsaldeko 20:00etan. Parrokiko koroak, Ozenki eta Kantuz abesbatzek eta ikastetxeetako umeek emango dute kontzertua. Atzo Kantuz abesbatzak Artzaionaren Parrokian kantatu zuten.

✓ ROKODROMO ETXEBERRIN

Eskalatzaileek bilera dute gaur lanak banatzeko. Rokodromo berria Etxeberrin egiten ari dira. Dagoeneko pipiak jotako lurra kendu eta partxeatu dute. Hemendik aurrera garbiketak bukatu eta paretak jartzen hasiko dira. Bilera gaur 20:00etan Tilosetan.

✓ DOBERA EUSKARA ELKARTEA

Bihar da loteria erosteko azken eguna. Doberan bertan eta arratsaldez azokan egongo dira salgai. □

IRRATIAK

(F.M. 99.2): 11:40etan: Aritz Zerain eta Iker Osak Bodegako bertso saioari buruz hitzegingo dute. 12:00etan: Aitor Aranbururen hitzaldiaren laburpena: "behi eroak". 22:00etan: *Idi Bihotz* musika taldeari elkarrizketa.

AGENDA

◆ **ERAKUSKETA**
Alberto Elosegiren argazkiak.
Txema tabernan.
Vietnam-i buruzko argazki erakusketa
Zumardi jatetxean.

Marisol Yabemen Kuadroak.
Ford Antzolian.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 557750

☎ FARMAZIAK

▶ Egunez: Bulnes Etxeberri
☎ 943 557738
▶ Gauz: Bulnes Etxeberri
☎ 943 557738

ITXASPE

ARRANDEGIA

Antziola 5-Tel. 943 330 365
20120 HERNANI

Jai Zoriontsuak eta urteberri on opa dizkizuegu!

mikel armendariz

proiektu eta instalazio elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI